

Hurakanen sorrera

Eguzki izpiek itsas urak berotzen dituztenean, hauek lurrundu arte berotzen dira. Horrela lainoak eta euria sortzen dira. Gu guztiok txikidanik ikasi dugun prozesu hau da, hain zuzen ere, hurakanak sortarazten dituenak.

Beraz hurakanak izugarrizko abiaduran mugitzen diren lainoak baino ez dira. Baina, nola sortzen dira hurakanak?

Esan bezala, eguzki izpiek ura lurrunarazten dute eta ur lurrinarek osatutako lainoak izugarrizko abiaduran mugituzterakoan, haize korronte bortitzak sortzen dira.

Baina zergatik ez dago Mitch bezalako hurakanik Donostian edo New Yorken? Jendeak uste duenaren ostera, hurakanen sorrera ez dauka zerikusirik bolkan edo lurrikarekin. Haize korronteak biraka ari den ur lurrina besterik ez dira. Donostian badaude haizeak, baina ez hain bortitzak, zergatik? Bizkaiko Golkora heltzen den eguzki izpi kopurua oso haundia ez denez, ez da oso ur kopuru haundia lurrintzen, beraz, sorturiko haizeak lurrundutako ur kopuruarekin zuzenki erlazionaturik daudenez gero, ez dira hain haize bortitzak nabaritutako.

Printzipio honi jarraituz, lurreko haizerik bortitzenak lurreko tokirik beroenean sortuko dira, hots; ekuadorrea, edo tropiko arteko espazioa.

Dagoeneko badaukagu atlantiar ozeanoren erdian izugarrizko laino haundia, baina orain arte esan duguna kontutan harturik, geldirik dago. Nola hasiko zaigu mugitzen?

Ba ur azalean dabilzan aire korronteek lurrin beroa gorantz bultzatuz eta lurraren errotazio mugimendua dela eta superlainoa bira hasiko zaigu.

Bale, badaukagu laino erraldoi bat atlantiko erdian biraka. Esan dugunez superlaino honek itsasotik hartzen du bizitzen jarraitzeko behar duen energia, hau da, ur lurrina, eta, esandakoaren arabera ere, gero eta indar bortitzagoa du.

Baina nola heltzen da ozeano erdian dagoen superlainoa Nicaraguaraino? erantzuna simplea da: beste haizeek (Alisioek, haize beroak) bultzatuta. Hauek hurakana bultzatzen dute itzasotik atera eta kontinentera iritsi arte. Ondorioak azkarak dira: hurakanak bere energi iturri bakarra galduko du, hots; ur lurrina. Beraz, gero eta indar gehiago galtzen joango da, "hil" edo desagertu arte.

Hurakanak zilindro itxura hartzen du bere bidaian zehar eta itxurosoena zera da, hurakanaren erdi-erdian egonez gero, egun eguzkitsu bat nabaritzen da.

Laburbilduz, esan dezakegu hurakanak oso arriskutsuak direla, askotan 200 km/h abiadurak hartzen baidituzte. Mitch hurakana, horrez gain, oso poliki mugitzen zen, 9 km/h abiaduran. Honek askoz arriskutsuagoa bihurtzen du hurakana, bortitza izateaz gain denbora luzez irauten duelako leku beran.